

GURUTZE BAT, GALDERA BAT

1988ko "Errenteria Hiria" ipuin lehiaketaren lehen saria 25 urtez beherakoen mailan.

El servicio militar es una obra de arte que simboliza ingenuamente la impotencia de políticos y militares modernos, incapaces de asumir que YA NO SON ni políticos ni militares, sino gerentes y ecónomos, sin la menor necesidad de tener ideas, pero con la esclavitud de un ideal.

(Felix de Azua, "Historia de un idiota contada por él mismo".)

Egunen iraganarekin patua fusil madarikatu hura maitasun ero gisa eskuetan laztantzea nuela uste nuen; iraganean zorigaitzezko zitzaidan amodio-gorroto erlazioa gero laket somatu bait nuen, eta eguzkialdi bitxi hura osoki ilunduko zuen eguna erdeinatu. Eskuak, esku hutsik gelditzearen beldur, azken amodio gauean bezala jokatzen zuten, laztanarekin bat egin nahiean, altzairua atzapartuz. Egun, gaua desagertu den arren ilunpean mugitzen naiz amodio sutsuaren atzetik, baina bazter guztietan estropozo eginez, hilotzen hasperen kiskalgarria dastatuz.

Apiril bateko egunsenti euritsuan, sukaldeko beroan xugatzen nituen azken malkoak. Adioaren atarian, matxinada irrintzia lau haizeetara oihukatu nahiean zainak estutzen nituen, hala ere, egun hits harrek zerakuskien tristeztian hats gabe igartzen nintzen. Nirea tragedia pertsonala omen, nirea...; amildegi luzean behera umezurtz utzi ninduten, jendez inguraturik, beraien begi izutiez neri begira, soilik begira, zentzurik gabeko begirada antzua besterik ez bait zidaten eskeintzen, menpekotasunaren adierazgarri; bihotz errukitsu haietatik, soilik errukia... Eta egunsenti hartan, zer axola euritsua zen ala ez, sarrerako zurezko atea emeki ireki zen eskaileretan gora zetozen soldadu boten zurrunbiloaren aurrean. Burumakur nengoen amaren magalean. Haietako espektro batek aurrera egin zuen; burumakur jarraitu nuen. Ozenki hitzegin zidan baina ez nion ulertu. Aberria aipatu zidan, ohorea, errepublika, eta ni burumakur...; bandera koloretzuz beteriko hiribide ederretaz oroitu nintzen, balkoi gorenetik haizeari eskeinitako irrifarre zuriez, estatu sakrosantuaz. Eskua lepondoan jarri zidan bortizki, eta nik, burumakur jarraitu nuen. Amak bere esku ahulak luzatu zizkidan baina ez ninduen heldu, eta bion artean zulo beltz iragangaitza nagusitu zen, aberriak, ohoreak, estatuak sekula beteko ez zutena.



Sarrerako zurezko atea itxi zen. Klean amaren begi erneak somatu nituen leiho atzean diasalarik egin gabe, eta aurpegiko zimurduretan behera malko bakarti bat isuri zitzaion. Lepotik heldu eta gerrara bidali ninduten, baina beste askoren zurezko atea ere emeki ireki ziren altzairuaren dei bihozkabearen aurrean, eta milaka ilusio gazte, milaka beldur elkartu ginen guda frontean oroitzapen xarmangarriak gozatuz superbizitzearren, baina beti burumakur, burumakur...

Trintxeretako bakardadean balak buru gainean zitztuka somatzen nituen. Une haietan hoza sentitzen nuen, baina amaren eskuak ni laztantzeko urruti zeudenez, eta ezinegona baretzearren nere amorantearen suan horditu nintzen. Fusila eskuetan laztantzen nuen

desio biziz amodioaren beroak itxutu nindukean prest. Altzairuaren berroz barren guztia kiskaldurik, ondoren, odol jario bortitzak, karraisi zorrotzak, eta kanpai hotsak dilin-dalan:

Mâschinengew 42 (MG 42)
7'92 mmtako kalibrea.
10 balako kargadorea.

Berriro kanpai hotsak, eta ni, pausoka botak gogorki lurreratuz hilotzak eta odol putzuak azpian utziz; urrutiratzen. Uniforme kakiak hondamendi haren gainera ibiltzeko adina kategori eman zidan. Fusila bizkarrean, suntsiketa ororen gainera mugi ohi nintzen fantasma gisa, baina atzean mugigaitz zeuden hilotzei eta negarrei ikusgor, entzungor, eginez.



Bapatean ordea, nere begiak suntsiketarik at nabari ditut, desertore naiz, amets gaiztoaren erdian esnaturik, leihoak zabaltzean sekulako hutsunea besterik ez dut antzeman. Kupidarik gabe amaierarik ez daukan amildegitik behera jaurti naute. Leihotik at ezerezean murgilduta beldur dut. Uniforme kakiz pasiatzen naiz, baina dagoeneko urratua da dominen dizdira, ene aurpegiko irrifarrea. Armadan uniforme aberria eta ohorea zela esaten zidaten; egun, uniforme odolez eta lokatzez zikin-dua dago, begirada negartiez zulatua, uniforme aberria eta ohorea bait da.

Zulo amaigabeen heriotz intziriek suntsituko nauten beldur naiz. Eskual altzairuaren beroa bilatu nahian darraikite, baina hutsaren zuloan galtzen dira destinu gabe.

- Itzuli zara Beñat. -diot nere buruari.

Lau urte motxila eta fusil batez horniturik igaro ondoren berriro etxera bidean denbora pasa ez balitz bezela. Baina ez, lau urte hauek ez dira fikziozkoak izan; hainbat eta hainbat umezurtzen malkoak bezain errealak, alargunen karraisi zorrotzak bezain nagartiak. Lau urte... kanpai hotsak dilin-dalan. Malkoentzat ez dago etenik eta munduko zelai guztiak gorrotoz landatuko dira; haizeak harat eta honerat darabilzki karraisiak, bazterrak mendeku deiaz bustirik.

Fusila bizkar gainean, atzera doan espektroa nauzue, itsaso gorri mugagabeen hilotz beltzak bazterreratuz. Koadro gorri beltzeko antzezle nagusia, soldadu ezezaguna. Bidean, oroitzapenak xugatzen ditut, gogoeta hilak enbor ustelduen gisa. Apirileko egun euritsu hark tristura zeukan sustraiturik, tren geltokian erlojuaren abiada kupidagabea kontenplazten genuen gazteak bezala. Eguzkia euri estalkiaren atzean ezkutatu zen ikuskizun dramatiko hura ahanzi nahiean. Tren hartako gazteok aberria defendatzera gindoazen ordainez odola eta negarra besterik jaso ez dugularik. Une hartan berriz beren senideenganako sentimendua baizik ulertzen ez zuten haiek, alde batera eta bestera mugitzen zituzten eskuak, dilin-dalan, agurka balada funebrean. Denek zuten zerbait galdua geltoki hartan, eta gogameneko bazter batetan indarka altxatu zitzairen heriotzaren sega ez sentiberaren ideia.

Non daude gaur lau urte bagoi haiek jazten zituzten gazteak? Hori pentsatzerakoan fusil hotsak datorzkit burura; negarra dantzut. Kanoien danbatekoen musika funebrean begi gazte izutuak luperatzen. Oihuak isilduz doaze eta hilotzez estalitako zelaiak besterik ez du irauten. Egun, zelaiak gorrituta daude; malkoak lurrera erortzean zingira itogarria eratzen dute, eta karraisi negartiez osatutako haize boldadek ekaitza. Ekaitza nere bihotzeko kantoi guztietan!

Gaur berriz bizirik diraut eta amets gorrian galdurik zorigaitz hori madarikatzen dut. Ene bizitzako lehen arnas hartzea eskeini zidan giroa bilaka dihardut; identitate galdua be-

rreskuratzeranoa. Lau urte dirala begietan argi pozgarria zerion gaztea bilatu nahiean nabil. Baina nigan dana iragana da; itsaso gorrian galdurik salba nezakeen argirik ez dago eguzkia fusil danbatekoen atzean galdu delarik. Kontzientziari entzun diot kiskalia nagoela eta surtatik gora doan ke beltza besterik ez naizela, fantasma alegia. Egia esan, lau urte pasa ditut sutan erretzen; poltsikoetan dauzkaten esku odolduak salatzen naute, esku hiltzaileak, beren ohorea tiroka irabazi dutenak, orain barkamena eske. Alferrik ordea, desertuan ari denak baino entzule gutxiago dauzkat. Hilotzek mugigaitz jarraitzen dute beren aurpegiatiko zeinua aldatu gabe eta nire erreguak mendekua eskatzen duten karrasien azpian galtzen dira.

Kanpai hotsak bizirik diraute mendien gonapean ezkututzen diren herrietan. Norbait ibiliko da bere maitenoaren bila eta ble beltzen azpian hilotz bat aurkitzen duenean ahalezinez ukabila gogorki itxiko du, zerura altxa, eta maitenoaren odolaz, bere odol berberaz blaitutako zelai hartan negarrez hasiko da. Mila bider madarikatuko nau; eguerdiko eguzkiaren beroz odol horrek su hartzean mendeku irrintzia eskainiko dit.

Apiril euritsu hartan kaleak oihuz bete ziren: *"Aberriak behar zaitu gazte; Errepublikaren defentsan. Ohorea..."*. Nik ordea, amaren laztantze goxoaren gomuta daukat, baina ez dut eskurik nabaritzen eta beldur naiz, burumakur...

"Aberriak behar zaitu gazte". Baina milaka bihotz amildegira bultzaturik, milaka ilusio zapuzturik. Ezinezkoa da bulego apainduetan gordetzen direnek horrelakorik egitea. Geureak egin du milaka zauriz josirik! Denek izango dute nori errezatua, inor madarikatze-ko. Nire gisako fantasmaz beteta dago mundua; kanposantuetako pakea.

Fusila eskuetan laztantzen dut baina ez du tirorik egiten. Altzairua behatz dardaratiez ikutzen dut eta lantegi ilunetako etengabeko lana besterik ez dut antzematen; izerdi garrazteaz landutako altzairua. Izerdi horrek ordea jabea dauka, metala lantzen duten esku zimurtuek bezala, esku berbera hoiek laztantzen dituzten haurren goseak bezala, esku berbera hoiek dardaizarazten dituen beldurrak bezala. Baina hori zilegi omen, aberriarengatik borrokatzen bait dute. Aberia eta haurren gosea, ohorea eta izua.

Langile sofrituak armak produzitzen; armak gosetiak langileak akabatzen. Tartean, bulegoetako dokumento pilatuak lokatz zingiretan itotzen ziren soldaduen destinoa maneiatzen. Beso altxatuak zerura begira euri tanta moduan tinko tinko, lurreratzen ziren lehergailuak beren begi zabal eta harrituez, etsipenez eta ahozabalik, kontenplaten. Ondoren ziprintin gorriak, ziprintin itogarriak, ziprintin okaztagarriak. Gorputzik gabeko buruak begi izutiez urrunean desagertzen zihozzen abioien arrastoa jarraituz. Baina azken finean etsaiak ziren, indartuenaren justizia merezi zuten.

Etixerat itzultzerakoan, buruan labainkada zorrotzak bezala sentitzen nituen negarrak amaituko zirela uste nuen, baina berriro ikuskizun berbera. Deuseztutako etxeen harri tartetik beso altxatuak nire begirada errukitsuaren eske, oihu amaigabeak nire belarrien atentzioaren eske; ke artetik derrepentean sortzen ziren irudi nazkagarriak... Eta hauek ez ziren etsaiak, irabazleak baizik, baina tiroen garaipenak dakarren mendekua besterik ez zuten jaso. Orduan jabetu nintzen nere ohorearen balio penagarriaz, mementu hartantxe itsu sentitzea desiratzen nuelarik. Lau urte herioari ihes egiten. Zenbat lagun gelditu ote dira nire atzetik!

Nork gogoratu beren izenak, orain ke hutsa besterik ez badira? Zenbat gurutze zerura begira agintzen diguten horiek dominez betetzeko! Gurutze bat, galdera bat...

Hoiei denei bizkarra eman eta burumakur itzuli naiz gorritasunik gabeko aire garbia arnastera.

Itzulerako bidea hartu dut, baina atzean utzitako lurraldea handitzen doan eran nere sentimenduak ere apurka bidean geratzen doaz, etsipenaren ondoan, ahalezinaren alboan, lur azpia arakatzen... Eguerdiko eguzki beroz gizon bat doa zelai zabaleko bidean, in-

guruko beltzune sakonean galtzen den puntotxo, fantasma alegia; neu naiz, porturik gabeko itsaso zabalean. Aurreratzen naizen eran bihotzak gero eta azkarrago dagit, giro itogarrian balego bezela. Burumakur noa; txorinoen kanturik ez da entzuten haizearen magalean dantzan, eta amaren begirada leiho atzean ikusi nahiean burua altxa dut, tente jarri dut, errealitatearen aurrez aurre, baina berandu da. Ortzean karraisi bat dantzut inguruko isiltasun antzua zartatuz; burumakur nengoen eta burua altxa dut, ortzeruntz bideratu begiak, bai ortzeruntz, amaren bila, sutondoaren bila, herriaren bila... Eta ortzean sarraskia eta suntsiketa besterik ez dakust; burua altxa dut, begiek nere izatearen funtsa birrindurik dakusaten. Kaleak huts, leihorik ez, amarik ez... Arbasoen herria, adiskideena, nereala, irabazleena..., egun, abiapunturik eta helpunturik gabeko karraisi antzu bat ortzean galdurik. Segituan, lau urte hauetan lagun izan ditudan deuseztapen irudiekin nahastu dut paisai hori. Hildakoek nigan bere mendekua bete dute; herri birrinduak heriotz karraisiak dakarzkite burura, eta isiltasun huts horretan banan bana hilotzen begirada mutuak dastatzen ditut.

Prakak etsaien odolaz bustita nituelarik kanpamendura itzultzean konten sentitzen nintzen; fusilaz etsaiak akatzeagatik heroia izendatu ninduten. Horregatik bihotz parean domina zintzilikatu zidatenean arbasoetaz, adiskideetaz, herriaz, nitaz... harro nengoen:

Beñat Garaiart. HEROIA ABERRIAREN DEFENTSAN

Baina egia esan domina hark betirako zulatu zidan bihotza, odol jario xume batez kontsumitzen ari naizen fantasma bihurtu nauelarik. Lau urte hauetako herioa aztertzen ari natzaizue, baina pasatako orrialde bakoitzak zauri bat dagit bihotzean; piskanaka, bihotza husten ari zait, eta dena hustu eta legortuko zaidan ueña azkar da etorriko.

Fusila eskuetan mantentzen dut baina ez nago burumakur. Altzairuaren goritasunak barrera kiskaltzen dit eta ez daukat malkorik, nere begiradak ez duelako ama topatzen, begiak dagoeneko harri beltzen gainetik ortzean galdu direlarik, askatasunean murgilduta dantzan dagiten txoriekin bat egin nahiean. Armaren muturra ahoan sartu dut; eztanda miresgarria entzun nahiean nago baina eskuek dardar dagidate. Kateak hautsi nahi ditut; dagoeneko herdoildu dira ordea, eta ni herdoildu naute. Kateak birrinduez gero ni akabo naiz; sarraskia amaituz gero, amaiatua naiz.

Hilotzen tartetik gora doan ke beltza nauzue. Ilunabar honetan gaueko iluntasunak bakarrik eskeintzen didan atsedenean, ilunpean ezkutaturik, desagertuko naiz, karraisi eta malko guztiak nerekin uxatuz. Ondoren, ilargiaren argi xuri garbiak izarretako haizearen goxoa dakarrenean, txoriek bere kantuz kale huts hauek jantziko dituzte, bele beltz gosetia espe-roan diharduten bitartean.

Eztanda ondoren balaren beruna nere bularraren kontra epelduko da, eta bular azpian gorderik taupaka egongo da askatasuna. Piztiak nere haragi ustela jatean askatasun grina zabalduko ote dute munduan? Aberriak bere soineko gorria gurutze beltzez apainduko ote du? Estatuak balkoi gorenetik odola, izerdia eta negarra eskatuko ote dio herriari? Eztand... AA-AHHHH. Gurutze bat, galdera bat.



Aitor Sarasola